

# JUAN DE ANTXETA

---

*Azpeitia'n jaio ta Iruña'n il zan amaseigarren gizaldian, Euskalerriko Miguel Angel deitua izan dan geure santuegille ospetsu au.*

*Miguel Angel artista andiaren jasa artu eban Florentzia'n, aregaz bizi izan zanean; Valladolid'eko eskola andian jabetu zan, urren, Gaztelako mistiku-zentsu goitiarraz; eta berezko estan euskal senaz oraatu eban bere erti-lan luze oparoa.*

*Artista andiak osotzen eben Valladolid'eko eskola ori: Berruguete, Gregorio Fernandez, Jordan, Bercera, Juan de Juni... Juan de Juni ori Medina de Rioseco'n, ango altara-buru edo erretaula egiten egoala zan gaisotula ta gure Antxeta aukeratu eban, besteak beste, Ian a amaitzeko. Ona bere itzak:*

*«Ez dago gure artean, nere Ian au amaitu lei beste artistarik, Juan de Antxeta ori izan ezik.»*

## BRIVIESKA'N

*Erri onetako Santa Klara'ko elizaren erretaula El Escorial jauregiaren parekoa dala diño. Au da etxegintza lanik aundi ta ederrena; eta a elizetako erretaulik andi ta ederrena.*

*Pedro Lopez de Gamiz de Santa Klara'ko oltzaren egillea, ta Antxeta ango irudiak egindako artista ospetsua.*

*Izkutuzko indar berezia daukie irudioik. Andra Mari'ren Gizakunde ta Jasokundeko irudiak gartsu ta andiro eginik dagoz.*

## ZUMAIA'N

*Antxeta'k egindakoa da Zumaiako altaburua be. Iru maillatan egiña dago. Azken apariko gora-berak ageri dira lenengo maillan, oso ondo landurik.*

*San Pedro'ren bizitza dakar, bigarren maillak: aren irudia ederra, erdi-erdian; Jaunak egindako deia, eskumaldean; eta aingeruak aren katibu-kateak askatzen, ezkeraldean.*

*Andra Mari'ren bizitza agiri da, irugarren mai*

*Aren Jaiotza, Gizakunde ta aingeru artean zerrura jasotzea.*

*Kalbario mendiko irudi bikaiñak ditu, azkenik, miragarritzko oltza onek.*

## JAKA'N

*Ango Katedraleko altara burukoa be gure Antxeta'rena da.*

*Munduan iñork egiñikako irudirik ederrenetakoak dira emengoak. Aparteko anditasun ta jas berezi dabez Jainko Irukotx onen irudi miragarriak.*

*Ba-dau emengo Jainko Aitak, Miguel Angel'ek egindako Moises aipatu aren antzik. Anditasun ta indarra dario alde guztietatik. Bere altzoan datza, baiña, onen anditasun ta indarraren fruitua, izadi guztia berekin daroan, bere Seme Jesus.*

*Au da, mundu guztian egin dan Jainko irudirik bikaiñena.*

## ZARAGOZA'N

*Oso ederra da gure santuegilleak egindako La Seo'ko altaraburu au. Eta ango gauzarik ederrena: Andra Mari'ren Gizakunde.*

*Aingerua..., gazte ziri, zoli, txotilla da; albistari bati dagokionez.*

*Begirune andiz eta erdi makurturik entzuten deutso aingeruari Andra Marik. Aberaskiro landuta dago Andra Mariren irudia. Gorputza borobiltzen dautsoe soiñeko oparoak, eta ama barri baten itxura gizen emoten.*

## AOIZ'EN

*Naparroa'ko eliz onetako apostoluak dira Antxetaren ertillanik ederrenak.*

*Biñan biñan dagoz altara atzeko oltzan. Batsuk artega, besteak nasai, bakotxa bere geroari begira Jainkoagaz berbetan dagozala, dirudi.*

*Euren soiñeko luze ta oparoak alango anditasun berezi bat emoten dautse; eta binako dantza bizian euren eginkizun ederra betetzera abiatzen doazela, emoten dabe.*

## ANTXETA'REN ITZALA

*Beste erri ta uri askotan be ibilli zan geure ertilaria. Eta irudi eder asko egin ebazan eurotan bere.*

*Ez zan oso zarrrik il. Ikasle asko ta onak itxi ebazan bere atzetik, alderdi guztietan: Bengoetxea, Larrea, Iriarte, Bazkardo...*

*Eta oneik egindakoa dira geure elizetako irudirik geienak. Iru gizaldietaraiño luzatu zan aren itzal maitagarria.*

URKIOLA'k